

BEGOÑA IBARROLA



ILUSTRAZIOAK JOSÉ LUÍS NAVARRO

EGUZKITAKO BETAURREKOAK
SAGUZAHAR BATENTZAT

desclée



BEGOÑA IBARROLA

EGUZKITAKO BETAURREKOAK
SAGUZAHAR BATENTZAT

Ilustrazioak: José Luís Navarro

Itzulpena: Miren Agur Meabe

desclée

Bat saguzahartxoak kobazulo ilun eta umel batean bizi zen. Gauetan baizik ez zen handik ateratzen, familiarekin, janari bila. Saguzahar txikia nekatuta zegoen beti ilunpean hegan egitearekin, eta, egun argia ikusi nahi zuenez, galdetu zien gurasoei:

—Zergatik ezin naiz goizetan atera eguzkia ikusteko? Ederra omen da...

—Saguzaharrok gauetan egiten dugulako hegan —erantzun zion aitak beste azalpenik gabe.

—Zergatik? Kobazulo aurretik pasatzen diren txori gehienek egunez egiten dute hegan...

Bat txikia, bere helburua lortzeko prest zegoenez, ekin eta ekin ibili zen. Amak, ordea, ideia hura burutik kentzeagatik, esan zion:

—Bat, bihotza, egunez hegoak erreko litzaizkiguke, begietan min hartuko genuke eta, gainera, animalia arriskutsuak ibiltzen dira...








Bat ez zen konforme geratu azalpen haiekin. Beraz, mundua bere kasa esploratzea erabaki zuen. Badaezpada, ilunabarrean atera zen, eguzkiak indar gutxiago daukan orduan.

Hegaldi ez oso luze baten ondoren, zuhaitzez beteriko parke batera iritsi eta hantxe geratu zen, geldi-geldi, itzaletan zegoen adar batetik zintzilik, buruz behera.

Handik pixka batera, mutiko bat, neskatxo bat eta gizon zahar bat ikusi zituen, bere adarraren azpiko eserlekuan jartzen juxtu-juxtu. Neskatxoak panpina xelebrea bat zeukan besoetan, eta mutikoak patinak. Ordura arte Batek ez zuen sekula jenderik ikusi eta ez zekien zer egin. Adi-adi geratu zen, zirkinik egin gabe.



—Aitona, mendiko kobazulo bat esploratzera joan nahi nuke. Eramango al nauzu? Eskolako batzuek esan didate oso pintura politak daudela hormetan.

Mesedez... —eskatu zion neskatoak.

Baina mutikoak zakar moztu zion:

—A zer lekokeria, Pauli! Zertarako igo haraino? Pinturak ikusteko? Arriskutsua izan daiteke.

—Joango gara egunen batean, Paulina —erantzun zion aitona—, baina jakin ezazu kobazuloa saguzaharrez beterik dagoela, eta saguzaharrek odola zurrupatu ahal digutela.

Bat betilun jarri zen: bere familiari buruz ari ziren hizketan, eta ez ongi. Beraz, di-da, beste adar batera aldatu zen, hirukotearen aurre-aurrera.

